

Loiola

Pedro Isasa auzotarraren harribitxiak

Abuztuaren 5a bitartean, Pedro Isasa Etxeberria marrazkilari loiolatarraren zenbait artelan ikusgai ditugu auzoko kultur etxean. Besteak beste, XX. mendearen lehen erdian lumaz marraztutako Loiolako baserri batzuk ikus daitezke erakusketan.

Pedro Isasa 1929an jaio zen Loiolan. Aitaren bitartez Pablo Uranga pintore handia ezagutu izanak margotzeko eta marrazteko zaletasuna piztu zuen Pedrorengan. Polloe inguruan zegoen baserriaren marrazkia izan zen auzotar gazteak egindako lehena, 15 urterekin. Hurrengo urteetan, Loiola inguruko beste baserri asko ere marraztu zituen Isasak eta marrazki haiek baserritarrei oparitu zizkien. 24 urterekin, lan kontuengatik, auzotarra Madrilera joan zen bizitzera eta bertako arte grafiko tailer batean jardun zuen urte luzez. Isasa, ogibidez, ez

da inoiz ez margolaria ez marrazkilaria izan, baina Madrilen pasatutako urte haietan ere marrazten jarraitu zuen. Besteak beste, Madrilgo euskal

etxeen gabonetako postalak egin ohi zituen.


Lumaz egindako marrazkiak

Luma izan da betidanik auzoko artistaren lan tresna nagusia. La Salle ikastetxean ikasten ari zela, klasekideek zirriborroak egitea eskatu ohi zioten Pedrori eta lehen marrazki haiek jada lumaz egiten

zituena. Isasaren arabera, lumak seriotasuna eta errespetu kutsua ematen dio artelanari eta oso aproposa da koloreak behar ez dituzten gaiak margotzeko.

Egun Zarautzen bizi da Isasa eta Loiolako kultur etxeak antolatutako erakusketa bere ibilbidea ezagutzeko aukera ezin hobea da. Izan ere, Loiolako zenbait baserri eta Gipuzkoako udaletxe askoren marrazkiez gain, zortzi pintura lan eta artistaren argazki batzuk ere bildu dituzte.


Erakusketa astelehenetan, astearteetan, asteazkenetan eta ostiraletan goizez bisita daiteke eta ostegunetan goiz eta arratsalde. Nabarmen-tzekoa da, bestalde, San Inazio jaietan, uztailaren 31tik abuztuaren 3ra bitartean, erakusketa goiz eta arratsalde ez gongo dela zabalik.



Bidebieta

Belar artifiziala abuztu amaieran

Apirilean hasi ziren Jasonebaso futbol zelaiaren zaharberitzeko lanak. Asteotan, besteak beste, errepide-tik gertuen dagoen atearen atzealdeko harmailak jartzen eta alboetako paretak finkatzen ari dira. Belar artifizialari dagokio-



nez, iraila erdialderako prest egotea espero da, futbol denboraldi hasierarako, hain zuzen. Aurreikusitakoaren arabera, belarra abuztuko azken astean eta iraileko lehenean jarriko dute.

Daniel Cortes Montmelon

Daniel Cortesek Clio Kopako hirugarren proban parte hartuko du larunbatean, Bartzelonako Montmelo zirkuituan.

Auzoko pilotuak ez du zorte handirik izan txapelketa hasieran. Batetik, lehen lasterketan istripua izan eta proba bertan behera utzi behar izan zuen. Bigarren lasterketan, bestalde, ezin izan zuen parte hartu, autoarekin izandako arazo batzuen ondorioz.

